

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik, gure hotelean, nahi ditugun berrikuntzak egingo ditugu, eta ondoren altzairuak, gimnasioko tresneria, koltxoiak... Iñigo Etxabe dendatik erosiko ditugu. Lehen hilabeteetan, hotela margotuko dugu eta denbora tarte bat pasa eta gero gauzak gehitzen eta berritzen joango gara, hala nola, oheak... Bezero bakoitzak aukeratuko du nolakoa nahi duen bere gela eta zerbitzuak, mota ezberdinetako gelak eta zerbitzuak baititugu. Gela erreserbatzerako garaian arazo bat balego gure telefono zenbakia dutenez, deitu besterik ez dute egin beharko eta guk arazoari aurre egiten lagunduko diegu bezeroei.

Web-orrialdea gure esku dago, guk egingo dugu eta guk eramango dugu aurrera promozio ezberdinak eta aukera ezberdinak bertan ezarriz. Gure hotelean edukiko ditugun ordenagailuetatik kontrolatuko dugu web-orrialdea.

Gu arduratuko gara gela erreserbatuz, publizitateaz eta gelen diseinuetaz. Altzairu, gimnasioko tresneria, oheak, koltxoiak ... manufaktura, berriz, Iñigo Etxabe fabrikak egingo du, eta bere esku utziko dugu produktua sortzeko prozesu guztia.

Nagusitasuna eta garrantzia, noski, hotela eta hoteleko zerbitzuei emango diogu. Horregatik, irabazien zati handi bat gure hotela behar den moduan mantentzeko erabiliko dugu. Baina garrantzitsuena, batez ere, bezeroekin eduki behar dugun konfiantza eta harreman estu hori izango da.